

<b>Berdintasun Zerbitzua</b>		<b>Getxoko Udala</b>
<b>Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA</b>		

**Bilerari buruzko datuak:**

Eguna: 2014ko apirilak 10   Tokia: Santa Klara Jauregia   Ordua: 17.00-18.15

**Bertaratuak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo.

Eskuz-Esku: Isabel Perez.

Gizatiar: Marisa Pedrero

Mujeres con Voz: Luciana Gomez Davies, Paula Ugidos.

Roda: Clara Lorenzo

ELA: Elvira Lemona

Udaleko alderdi sozialista: Teresa García Oviedo, Inés Becares.

Bildu: Arantza Gutierrez.

EAJ-PNV: Elena Coria.

Alderdi popularra: Ana San Basilio.

Lehendakaria: Keltse Eiguren.

Idazkaria: Idoia Eizmendi.

**Ez dira bertaratu:**

Getxo Enpresa

Enclave de ciudadanas por Getxo

**Gai-zerrenda**

- Aurreko akta onartzea.
- Martxoaren 8ko kanpainaren balorazioa.
- Hurrengo jarduerak:
  - Ekainak 28, LGTBen harrotasunaren eguna.
  - Baliabideei buruzko hitzaldia.
  - Jabekuntza Eskolen ikasturte amaierako topaketa.
  - Jabekuntza Eskolen sarearen logotipoa aukeratzeko lehiaketa.
- Galde-eskeak.

Gai-zerrendako gaiak lantzen hasi aurretik, nor bere burua aurkeztu du, Mujeres con Voz erakundeko ordezkari batek lehenbizikoz parte hartu baitu Kontseiluan.

### **Aurreko akta onartzea**

Aurreko bilerako akta onartu egin dute.

### **Martxoaren 8ko kanpainaren balorazioa**

Berdintasuneko zinegotziak eskatu du martxoaren 8ko jardueri buruzko balorazioak egitea, besteetan bezala.

Mujeres con voz erakundeak jardueren balorazio positiboa egin du, dena iruditu zaie interesgarria. Emakundek berdintasun-politiken gainean egindako hitzaldira joan zen elkarteko kidea jarduera "aspergarriagoa" izango zenaren beldur zen, baina oso ulergarria izan zen eta hizlariak arindu egin zuen hitzaldia.

Eskuz esku erakundeko ordezkariak ez zuen jarduera batean ere parte hartu, lan-ordutegiagatik.

Bilduko ordezkariak esan du Emakundeko hitzaldira ezin izan zuela joan, lan-kontuengatik; gainerako jardueri dagokienez adierazi du ondo egon zirela, eduki zein partaide aldetik. Sexu- eta ugalketa-eskubideei buruzko hitzaldia, antzerkia eta bideoaren aurkezpena gustatu zitzaizkion.

Algortan martxoaren 8an egin zen manifestazio-kalejira ere aipatu du: jende askok parte hartu zuen, adin guztietakoak, eta giro ona egon zen; horregatik, balorazio oso ona egin du.

Bilguneren ustez, antzerkia, hitzaldia eta bideoa ondo egon ziren, jende askok parte hartu zuelako. Dena den, iruditzen zaio jardueretan gazte gutxi parte hartzen dutela eta hori konpondu beharra dagoela, batik bat sexu- eta ugalketa-eskubideei buruzko hitzaldian, zehazki abortuaren kontuan, legearen erreformaren lehen biktimak gazteak izango baitira.

Gizatiar erakundeko ordezkariak ez zuen parte hartu jardueretan, haren kide batzuk bai, ordea, eta asko gustatu zitzaizkien. Ordezkaria *Ángeles de hierro* pelikula eta Basauri-Marienea emakumeen etxean eman zuten *Las maestras de la república* dokumentala ikustera joan zen, eta biak oso interesgarriak iruditu zitzaizkion. Gogoratu du Gizatiarrek beste jarduera batzuk ere antolatu zituela martxoaren 8rako, besteak beste Toti Martínez de Lezearen hitzaldia; hitzaldira jende dezente bertaratu zen.

PSEren iritziz jende gehiago joan zen antzerkira hitzaldietara baino; horrek esan nahi du jarduera ludikoek jende gehiago erakartzen dutela eta era horretako ekintzak baliatu behar direla biztanleak sentsibilizatzeko.

Berdintasuneko teknikariari ere garrantzitsua iruditzen zaio jarduera ludikoak antolatzea, baina uste du hitzaldiak eta mahai-inguruak ere antolatu behar direla, hainbat gai sakontzeko aukera eduki ahal izateko. Alde horretatik, gogoratu du martxoaren 8an bi eratako jarduerak antolatzen direla beti.

ELAk galdetu du gazteengana heltzeko ahalegin bereziren bat egiten den, ikastetxeei informazioa ematen al zaien.

Berdintasuneko teknikariak erantzun dio martxoaren 8ko jarduerari buruzko informazioa Gazteen Informazio Zerbitzura bidaltzen dela eta Zerbitzu horrek informazio-guneak dauzkala ikastetxeetan; informazio hori formatuaren eta jardueren arabera zabaltzen da gune horietan.

Berdintasuneko zinegotziak esan du balorazio oso baikorrak egin dituztela baina, haren iritziz, Emakunderen hitzaldira jende oso gutxi joan zela; eguraldi txarra zela eta alarma gorria zegoen eta, gainera, astelehena zen, baina ez zaio normala iruditzen hain jende gutxi joatea. Gainera, gogoan du astelehen horretan ia ez zegoela jenderik, baina hurrengo asteleheneko jarduera jendez gainezka zegoela. Ez daki zergatik gertatzen den hori, hitzaldia erakunde batek eman zuelako edo berdintasun-politikei buruzko gaiak nekagarriak iruditzen zaizkigulako. Seguru asko hainbat arrazoi egongo dira, baina uste du horri buruzko hausnarketa egin behar dela, autokritika, alegia.

Eskuz eskuk dio jende askok ez daukala jardueren berri.

Bilguneko ordezkariak dio egun hartan Bilbon zeudela, Troikaren jardunaldiarekin batera antolatutako foro soziala zela eta. Sindikalista gisa jarduera ugaritan parte hartu du Emakundeko zuzendariarekin batera, eta harentzat hori ez da arazoa.

Berdintasuneko zinegotziak esan du sexu- eta ugalketa-eskubideei buruzko hitzaldian, hizlariak komunikatzeko gaitasun handia zuten arren, alderdi teorikoa ez zela ondo kokatu, ez zela ondo azaldu. Parte hartzen duen jendeari dagokionez, gazteengana heltzea kosta egiten zaiela aitortu du. Hori konpontze aldera, ikastetxeetan indarkeria prebenitzeko eta heziketa afektibo-sexualari buruzko programak egiten dira.

PSErentzat oso garrantzitsua da gazteengana heltzea, baina horretarako baliabide egokiak erabili behar dira, sare sozialak alegia, eta mezu egokiak bidali. Alde horretatik, mezuak gutxienez hilabete lehenago bidali behar dira.

Eskuz eskuren iritziz, gazteei, oro har, ez zaie interesatzen parte hartzea.

Berdintasuneko teknikariaren iritziz ezin da orokortu, gazte askok talde eta mugimenduetan parte hartzen dutelako. Iruñean abortatzeko eskubidearen alde egindako manifestazioan, adibidez, neska gazte askok parte hartu zuten. Horrez gain, gogoratu du martxoaren 8ko kartela nork egin zuen eta zer eratako kartela

den, eta uste du Miloko Venusaren irudiak nekez erakartzen dituela gazteak, beste irudi eta eduki batzuk behar direla.

Gero bildutako jendeaz hitz egin du, oro har; horri dagokionez, Gizatiarrek aipatu du pozik daudela ostegunetako hitzaldietara joaten den jendearekin.

### **Hurrengo jarduerak**

Gai-zerrendako hurrengo puntuan aurreikusitako jardueren berri eman dute.

#### Ekainak 28, LGTBen harrotasunaren eguna

Berdintasuneko zinegotziak esan du azken urteetan egun hori ospatzeko hainbat jarduera antolatu dituztela: jarduera ludikoak, batetik; eta hitzaldi eta mahai-inguruak, bestetik.

Kontseiluan parte hartzen duten talde eta elkarteek aste bete izango dute proposamenak aurkezteko.

#### Baliabideei buruzko hitzaldia

Berdintasuneko zinegotziak azaldu du hitzaldi horren ideia Enclavek egindako proposamen baten ondorioz sortu zela, eta erabaki zutela martxoaren 8a aitzakiatzat ez hartzea, hau da, egun horretan ez egitea. Aurreko bileran jarduera horretaz hitz egin zuten arren, antolatzen hasi aurretik gaia berriz ere planteatu nahi du, baliabideez hitz egiteko erakunde bateko ordezkari politiko edo tekniko bat ekarriko litzatekeelako (edo biak) eta, ondorioz, jakin nahi duelako jendea erakarriko duen ala ez.

Alderdi Popularrak planteatu du egokiagoa dela alderdi guztiekin mahai-ingurua egitea, informazio instituzionala ematen den kasuetan interesgarriagoa izan daitekeelako.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio baliabideez hitz egiteko baliabide horien arduraduna ekarriko dela. Alderdi Popularrak planteatzen duena eztabaida politikoa edo ideien inguruko eztabaida izango litzatekeelako, baliabideei buruzko informazioa emateko jarduera bat baino gehiago.

Alderdi Popularrak Caritas ekartzea proposatu du, Aldundiaren mende dauden etxebizitzak dauzkatelako. Dena den, ez daki Caritas ekartzeak ez duen izango konnotazio...

Bilgune Feministak galdetu du zergatik tematzen diren horretan, hau da, zergatik dioten gai instituzionalek ez dutela jendea erakartzen. Bilgune Feministaren ordezkariaren iritziz hori ez da egia, Emakundek emandako hitzaldian hainbat faktoreren ondorioz hartu baitzuen parte jende gutxiagok. Ondoren galdetu du Enclavek zer antolatu nahi zuen, hitzaldi ireki bat edo baliabideei buruzko informazioa emateko hitzaldi bat.

EAJko ordezkariak gogoratu du hitzaldiaren ideia sortu zela Enclavek galdetu zuenean Getxon adingabeak hartzeko baliabiderik ba al dagoen; galdera horren ondorioz planteatu zen adingabeentzako baliabideei buruzko hitzaldi bat egitea.

Bilduren iritziz, adingabeentzako baliabideei buruzko hitzaldia ez luke Berdintasun Zerbitzuak eman behar, Gizarte Zerbitzuek baizik. Horrez gain, Bilduko ordezkariak esan du Udalaren web-gunean baliabideei buruzko informazio argia eman beharko litzatekeela.

Berdintasun Teknikariak proposamena nola ulertu duen azaldu du, indarkeria sexistaren biktimeentzako, hau da, emakume eta adingabeentzako baliabideei buruzko hitzaldi gisa, alegia.

Bilgunek zehaztu du Enclavek gaia planteatu zuenean genero-indarkeriaren biktime diren adingabeek ari zela.

PSERen iritziz, baliabideei buruzko informazioa oso garrantzitsua da, jendea galdu egiten baita erakundeen baliabide eta eskumen kontuekin. Gainera, uste du askotan jendea "desinformatu" egiten dela, batak besteari informazioa ematen dionean.

Gizatiarri asko interesatzen zaio adingabeentzako baliabideen berri jasotzea, oso garrantzitsua baita zer baliabide dauden jakitea.

Bilgunek proposatu du hitzaldi ireki bat egin ordez baliabideez arduratzen den pertsonaren batek Berdintasun Kontseilua zuzenean informatzea.

Alderdi Popularrak uste du aukera ona dela, interesgarria iruditzen zaiolako elkarteek informazio hori edukitzea.

Berdintasun Zibegotziaren iritziz, hori ez da jendeari informazioa ematea.

EAJko ordezkariaren ustez, Aldundiko Emakume eta Familia Saitetik etortzen badira, gai gehiagoz hitz egiteko aukera egongo da, eta informazioa Kontseiluari bakarrik emanez gero jarduera motz geratuko da. Beraz, hitzaldi ireki bat antolatzearen alde dago.

Azkenik, hitzaldi ireki bat egiteko proposamena luzatzea adostu dute, eta hitzaldia maiatzaren 5ean egitea, beharbada. Hizlari gisa nor gonbidatuko duten erabakitzea falta da.

#### Jabekuntza Eskolen ikasturte amaierako topaketa

Berdintasuneko teknikariak Jabekuntza Eskolen Sarearen hurrengo topaketaren berri eman du; aurten Ondarroan egingo da, ekainaren 14an. Emakume sahararren ahalduntzea izango da gaia eta, gai hori lantzeko, Tindufeko (Aljeria) kanpamentuetako eta Marokok okupatutako lurraldeetako emakume saharaiarrak etorriko dira. Izan ere, emakume saharaiarrak indartzen laguntzeko proiektua Bizkaiko Jabekuntza Eskolen Sarearekin batera sortu zen. Jardunaldi horretako

helburuak izango dira, batetik, ingurune politiko, sozial eta geografiko desberdinetako emakume saharaiarren ahalduntze-prozesuak ezagutzea; eta bestetik, Eskolako ikasleen eta emakume saharaiarren elkarteen inplikazioa eta haien arteko trukea sustatzea.

Alderdi partizipatiboenean, emakumeen eta saharar herriaren borrokari buruzko erakusketa kolektibo interaktibo bat egingo da eremu publiko ireki batean. Eta, jardunaldia amaitzeko, bazkaria egingo da hondartzako tabernan.

Aurreko urteetan bezala, Getxotik hara joateko autobusa jarriko da. Izena emateko epea maiatzaren 19an hasi eta ekainaren 2an amaituko da.

### Jabekuntza Eskolen Sarearen logotipoa aukeratzeko lehiaketa

Berdintasuneko teknikariak jakinarazi du Bizkaiko Jabekuntza Eskolen Sareak ere irudi bat aukeratzeko lehiaketa antolatu duela. Kontseiluari laguntza eskatu diote: lehiaketako epaimahaiko kide izango den pertsona bat aukeratzeko, alegia, diseinuarekin, publizitatearekin edo arte plastikoekin zerikusia duen pertsona bat.

Mujeres con Voz elkarteko ordezkari bat aukeratzeko planteatu da. Dena den, ez dute erabakirik hartu, aste betean proposamen gehiago jasoko dituztelakoan.

### **Galde-eskeak**

- Eskuz eskuk galdetu du Getxoko emakumeen historiari buruzko ikerketarako beka zerikusirik ba al duen Berdintasuneko teknikariak Jabekuntza Eskolei buruzko tesi batean elkarlanean aritzeko orain dela gutxi bidalitako eskariarekin. Berdintasuneko teknikariak erantzun dio ezetz, eskariak Eskolei buruzko ikerketa batekin duela zerikusia, eta emakumeek historian egindako ekarpenei buruzko ikerketarako beka San Nikolas Ikastolako andereñoen gainekoa dela eta laster argitaratuko dela.

- PSEk tratu txar psikologikoen salaketa batean Ertzaintzak egindako lanaren gaineko kasu bat jarri du mahai gainean. Interesduna ados badago, datu gehiago emango dituzte, informazioa Indarkeria Protokoloaren Jarraipen Batzordeari helarazteko.

- Bilgune Feministak gainerako elkarteei galdetu die posta elektronikoa begiratzen al duten eta haiekin harremanetan jartzeko modu eraginkorragorik ba al dagoen. Izan ere, abortatzeko eskubidearen alde Iruñean egin zen manifestazioa zela eta gainerako elkarteekin harremanetan jarri ziren, elkarrekin autobusean joate aldera, eta inork ez zien erantzun. Gainerako elkarteek aitortu dute mezua irakurri zutela, baina ez zutela erantzun. Hurrengoetan erantzungo dutela hitz eman dute.

- Berdintasuneko zinegotziak azaldu du zerrendatik kanpo geratu den gai batez hitz egin nahi duela Kontseiluan, festetarako kanpainaz, hain zuzen ere. Jakinarazi du Andramariko Jai Batzordearekin bildu dela eta gainerako batzordeekin hitz egingo dutela, kanpainan inplika daitezzen.

Aurten goiz hasi dira gaia lantzen, Andramari kanpainatik kanpo gera ez dadin. Festa horretan joan den urteko liburuxkak banatuko dira, batik bat neska gazteei zuzendutakoak.

Aurten egiteko material berriei dagokienez, Berdintasuneko zinegotziak azaldu du Batzordeak txapak egitea proposatu duela, gazteei pegatinak baino gehiago gustatzen zaizkielako eta iraun egiten dutelako. Hortaz, txapak egiteko aurrekontua eskatuko dute.

- Bilgune Feministak igandeetan jarduerak egin ahal izateko lokal bat eskatu du. Orain arte zineforumeko saioak Abianen egiten zituzten, baina partaideetako batek mugitzeko arazoak dauzka, eta lokalak oztopo arkitektonikoak.

Berdintasuneko teknikariak Jabekuntza Eskola erabiltzea proposatu du, igandeetan libre egoten delako. Berdintasuneko zinegotziak azaldu du lokal hori ez zaiola edozein elkarteri uzten, Bilgunek, dekretuz, bulego bat daukala Martikoenan, ez Eskolari dagokion lokala. Horregatik, proposatu die eskaria Koldo Iturbe zinegotziari egitea, hura arduratzen delako lokalez.

**HURRENGO BILERA: IRAILAK 11, ASTEAZKENA, 17.00ETAN SANTA KLARAN.**